

36'KO GUDA EUSKALERRIAN

Uztaillaren 18n. egunean, Franco'ren matxinada asi zanean, laster agertu ziran lenengo ondorenak. Onein ezau-garri da "Guernika Pikasso'ren lauki ederra, guda-toki ez diran errien bonbaketa agertzen dauala.

1.- OTXANDIO'n

Erri txiki au izan zan erdi-ugarte osoan guda eldu baiño lenago bonbatua izan zan lenengoa: 1936'ko uztaillaren 22'an. Il ziranak Santa Marina eguna ospatzen egozan. 57 andra eta ume il ziran.

Jazokizun au eskutatu egiten dabe edestilariak. Zergaitik? Bizkaitarrak itxartuteko eta guda gogorra zala ikusi egien egin zan. Ordura arte Bizkaia bakean lez egoan.

Aldi aretan egazkin txiki ikusten zan aidean eta egun aretan bat etorri zan lenengo erriaren gaiñe-gaiñera. Umeak urten eben egazkiña agurtzeko. Egazkiñak plazara bota eba-zan lerkaiak eta ilketa aundia egin eban. Zelako bildurra sartu zan errian! Bilbao'tik ara joan ziran medikuak dira lekuko. Ikaragarria!



Ilketa ori egin ebana Salas Larrazabal Orduña'ko milita-rra ta edestilaria izan zan. España'ko erregea dan I Juan Karlos'ek egazkin-arloko Kapitai Nagusi izendatu dau.

2.- IRUN'en

Eundak boluntario atzerritarrak artu ebezan armak Irun zaintzeko, laterri-arteko brigadak etorri baiño lenago. Bar-tzelona'ra joiazan olinpiadetan kideko izateko eta bidean aurkitu eben matxinada, muga itxita egoalako. Beljika'ko komunistak ziran eta komunistakaz alkartuta bete eben ekin-tza ori.

Mola'ren gudariak ezin sartu izan ziran Irun'era, irailla-ren 5n. egunera arte, ilebete ta erdiko burruka egin-ondoren baiña, artean, atleta komunistak egin eben lana, erria zain-tzen. "Kondor" egazkiñakaz etorri ziran Mola'ren lagunak eta oneik iraillaren 5n. egunean sartu ziran. Guk "Irun sutan dago" entzuten gendun orduan, Frantze ta Europa'tik alden-duta geratu giñan euskaldunak eta ezin izan gendun izkillu-rik leorrez ekarri.



GUDARIAK (Berazategi-Domingez) 1936'ko guda Euskalerrian

Euskalerria gudara urten eban erri bat zan, bere burua zaindu nai eban erria.

Euskaldunak ondo ekien guda egin ezean be, bardin izan-go zirala España'ren aldetik, zapalduak.

Besteak baiño izkillu gitxiago euken, baiña adorea geia-go. Orregaitik, asieran zapaldua izan zan beste errialde batzuren antzera, ezkertarrak izan ziran guda-aurrean zapal-tzailleak. Notiñak, ilten eta eleizak erreten eta olakoetan asi ziran emen be, Jaurlaritza sortu baiño lenago.

Alde batetik naparrak etorri ziran eta bestetik, egoaldetik arabarrak eta matxinoai aurka gogor egiten asi ziran, guztiak eritxi batekoak izan ez arren.

Eduardo Renobales'ek aztertu dau ANB'ren jokabidea aldi aretan. Ez eben nai erkalagaz bat egin, araudiaren aurka egozalako.

Beronek aztertzen dau Jagi-Jagi'koen jokabidea be. Oneik be ez ziran beti zuzen ibilli, araudiaren aurka egozalako.

Eta beste au diño: "Euzko Gudaroztea" bere erriari lotu-ta egoala eta bere lurra ondo ezagutzen ebala, euren aberria zalako: mendi-arte latzak, bide txarrak eta arerioak egazkin eta artilleri onagaz etozala. Mendi-artean gabaz egin eikien aurrera eta gero eguneaz atzera.

Gudariak be beti ziran arerioen soldaduak baiño gitxiago. Euskaldunak baiño ez ziran eta besteren artean falanjekoak, erreketek, Afrika'koak, italiarrak eta alemanak (Condor) ego-zan. Guztiz 100.000 ziran soldaduak eta 45.000 gudariak. Gai-ñera gudariak ez egozan gudarako gertatuta, zibillak ziran, agintariak be bai. Baiña, Soldadu geiago euken arerioak baiño, gogo eta adore geiago euken gudarako gudariak.

1937'ko martiaren 31n. egunean asi zan Mola Bizkaiaren aurka guda egiten, aste bitan Bilbao'ra elduko zalakoan, baiña iru illebate bear izan ebazan. Gudaldi gogorrek izan ziran Saibigain'en, Sollube'n, Bizkargi'n eta Artxanda'n, "Burdinezko garrikoa" igaro ondoren. Egunez galtzen ebana, sarritan gabaz barriro eskuratzen eben, egazkiñik aurka ez eukelako, esan dogun lez.

Lenengo osotu zan askotariko gudaroztea, onei milizia-nuak esaten jaken, eta eurak izan ziran gerokoaren sorleku.

Gero alderdi politiku bakoitxak bere gudariak gertatzen eba-zan eta naikoa ondo alkartu ziran gudarozten bakarra osotzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek